



22. zEnbakiA
diRua moRRoi ona
baina nagusi tXaRRa!

0. AZALA

Badakizue aldizkaria nahi duzuen moduan irakur dezakezuela, ezta? Hau da, edo hasierako orrietatik amaierara arte, edo goitik behera, edo behetik gora... Zuen eskuetan dago nola garatu irakurketa! Guk ez dugu inolako araurik inposatzen! Eta, beraz, zeuen buruari ere, irakurtzeko nolakotasunari begira, askatasun puntu bat eskaintzea onuragarria izango litzatekeela uste dugu! Izan ere, seguru gaude irakurketaz gehiago gozatzea lortuko duzuela! Eta zuen sormenari bide eman ez irakurtzeko bide berriak eraikitzen hasiko zaretela! Beraz, izan sortzaile irakurketaz eta ez galdu monotonian!

Ea ba! Zenbaki honetako azalean, mutil bat ageri zaigu poltsikoak eskuan dituela, ezta? Mutikoaz gain, zer gehiago ikusten duzue bertan?

Aldizkarian barneratzeko, honako hau egitea proposatzen dizugu:

Azalean ikusten dituzuen ekintza guztiak deskribatu beharko dituzue, banan-banan, adibidez:

- ❖ Zuetariko batek: “Txerri bat buruan galdera marka bat duela mutikoari begira dago”.
- ❖ Beste batek: “Igel bat irten da mutikoaren poltsikotik”.
- ❖ ...

Ea zenbat ekintza aurkitzeko eta adierazteko gai zareten... zenbat eta gehiago aurkitu, hobeto! Horretarako ere, sormenari bide askea eman ahal diozue, eta ekintza horietan istorio txiki bat asma dezakezue, adibidez:

- ❖ “Igela mutikoaren poltsatik irten da poltsak usain txarra zuelako...”.
- ❖ “Txerria galdera marka bat ganean duela dago, ez dakielako zer egin: lurrera salto egin edo bertan gelditu...”.

Horrelako ekintzek imajinazioa eskatzen dute, eta imajinazioa erabiltzea sekulako tresnaz baliatzea da! Beraz, imajinatu eta gozatu!



22. zEnbakia
diRua moRRoi ona
baina Nagusi tXaRRa!

Ondoren, bunbuiloan ageri dena irakurtzea proposatzen dizuegu. Nahi duzuen moduan, noski! Bertan jartzen duena haurrak ulertu duela jakiteko, edo ondo uler dezan, saia zaitez metafora bidez azaltzen. Hala ere, ez badu ulertzea lortzen, adibide praktikoak eman.

Bestela, aurkibidera pasatu eta bertako eskuineko testua irakurri lasai haurrari.

1. Hazi- Hezi

Eman diezaiogun hezkuntzari garrantzia!

Zuentzako, hau da, hezitzaile rola duzuenentzako informazio hutsa dela albo batera utzi, eta parteka ezazu ondoan duzun haurrarekin. Irudiaren aurrean zaudetelarik, egin iezazkiozu honako galdera hauek:

- ❖ Nora doa irudian agertzen den haurra?
- ❖ Bakarrik dago. Zerbait gertatzen al da?
- ❖ Zuk gustuko duzu zenbait momentutan bakarrik ibiltzea?
- ❖ ...

2. Aurkibidea

Atal honetan, beraz, eskuineko testua hartu eta irakur iezaiozu haurrari. Behin testua irakurrita, eman berriz adibideren batzuk, kontzeptua edo ideia ondo uler dezan, eta, ondoren, segi aldizkariarekin jolasean.

Ezkerreko aurkibidea irakurtzeko, galdetu haurrari ea irakurri nahi dituen atalak! Hala bada, proposatu ozen irakurtzeko, ale honetan zer aurkituko dugun jakiteko irrikaz zaudela eta!



22. zEnbakiA
diRuA moRRoi onA
bainA Nagusi tXaRRa!

3. Pupu eta Lore

Pupu eta Loreren ataleko irudiak guztiz adierazgarriak eta ulerterrazak direla ezin ukatu!

Esaldiak irakurri txandaka, eta irudia aurrean dugularik, galdera batzuk erantzungo ditugu irudia aztertzeko:

- ❖ Zer esan nahi du esaldiak?
- ❖ Zer egiten dute Pupu eta Lorek?
- ❖ ...

Kontuan izan, norberaren iritzia armonia onean partekatzean, haurrekin sortuko duzun atxikimendua orduan eta esanguratsuagoa bihurtuko dela. ANIMATU!!!

4. Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Pirritx eta Porrotxen ipuintxoak zenbaki honetako gaiaren inguruan hitz egiten digu: diru beharraren eta diru beharrik ezaren dilemaren inguruan. Egia esan, esaldi asko ditu komiki honek hausnartzeko; beraz, horretan zentratuko gara oraingoan.

Hona hemen hausnartzeko balioko dizueten esaldiak. Irakurri zuk edo haurrak, eta, ondoren, galdetu haurrari ea zer iruditzen zaion bertan esaten dena, zer iritzi duen...

- ❖ “Nor da behartsuago, asko duena edo gutxi behar duena?”.
- ❖ “Asko daukanak beharra baino gehiago desiratzen badu, beharra izango du beti. Beti izango da behartsua”.
- ❖ “Eta gutxi daukana ez da pobrea izango, daukana baino gutxiago behar badu”.
- ❖ “Opariak egiteko eta lagunari poza emateko ez dugu diruaren beharrik”.



22. zEnbakia
diRua moRRoi ona
baina Nagusi tXaRRa!

5. Txoko txiki kuttuna

Bertsoak aurrean ditugarik, horietako hitz edo esaldi batzuk hartuko ditugu; zertarako? Bertsoen nondik norakoa ulertzeko.

- ❖ 1. bertsoan: txin-txin, txis-txis, sosik gabe...
- ❖ 2. bertsoan: aberatsak, pobreak, aberatsa batzuetan pobrea...

6. Osasuna, gure ondasuna

Atal honetan, gure Tiritatxoren aholkuak ageri zaizkigu. Tiritatxok gauza interesgarri asko dakizki osasunaren inguruan; beraz, egin kasu!

Atal hau irakurtzeko honako proposamen hau egiten dizugu:

- ❖ Etxeko leku bakoitzean ikusten duzuen ekintza osasuntsu bat identifikatu eta adierazi.
- ❖ Ondoren, ekintza horiek Tiritatxok ematen dizkigun aholkuekin bat datozen ala ez ziurtatu.
- ❖ Hurrengo egunetan: gure lagunak emaniko aholkuak betetzen saiatu!

7. Martinbertso

Zer gertatu ote zaie Pupu eta Loreri? Ziur badituzula kaxaren batean kanikak. Har itzazu kanikak eskuan; jarraian, lagundu haurrari komikia irakurtzen. Amaitutakoan, jolastu kanikekin, komikian ikusi eta irakurritakoa partekatuz.



22. zEnbakia
diRua moRRoi ona
baina Nagusi tXaRRa!

8. Filosofo txikiak

Filosofatuko dugu apur bat? Badakizu atal hau horretarako izaten dela ona, ezta? Bada, gogoz bazaudete behintzat, segi dezagun jolas filosofikoekin!

Honako hau egin dezakezue:

- ❖ Peru agertzen zaigun lehen orria irakurtzeko proposatu haurrari.
- ❖ Utzi pentsatzeko denbora, ea zer erantzuten duen...
- ❖ Ondoren, lagun filosofoen komikia irakurri, eta, amaitutakoan, egin berriz hasierako galderak haurrari...

Ea lortzen duen aberastasunaren eta pobreziaren kontzeptuak (askotan okerrekoak izaten direnak) ulertzea eta horien kontzientzia bereganatzea.

9. Horma-irudia

Zer iruditzen zaizue aldizkarian ateratzen diren horma-irudietatik ipuin bat asmatzen badugu? Erabili bi irudiak, eta erabili irudimena. Sortutako ipuina gauean oheratzerakoan kontatzera animatzen zaituztegu.

ESPERIENTZIA POLITA IZANEN DA!!!

10. Marikalanbre

Marikalanbre biok batera irakurtzea proposatzen dizuegu. Badakizu, elkarrekin egiten diren ekintzak beti izaten dira dibertigarriagoak, eta, horrez gain, elkarrengandik ikasteko ere balio izaten dute. Beraz, eman aukera hori zure txikitxoari, eta irakurri biok batera. Nahi duzuen moduan eta nahi duzuen erara!

Utzi bide askea zeuen buru eta bihotzei!



22. ZENbakia
dirua MORROI ona
baina NAGUSI TXARRa!

11. Largabista

Largabistak gure naturaren parte diren elementu horien gaindiko informazio aberasgarria eskaintzen digu zenbakiro. Oraingoan, gaztainondoak gizakiari eskaintzen dionaren inguruko ezagutza transmititu nahi dugu. Jakin ezazue liburuan irakurri eta irudian ikusten dena, errealitatean ikustean, zinez aberatsa dela. Ahalegindu zaitezte horiek erakusten!!

12. Zenbatak

Zenbaten atalean ere, dirua gora eta dirua behera dihardute. Oraingoan, irakur dezala haurrak komikia bakarrik, lasai... eta utzi denbora... Bitartean, ekar iezaiozu jateko zerbait! Tripak beterik, buruak ere hobeto lan egiten du eta!

Ondoren, zera galdetu ahal diozu:

- ❖ “Ulertu duzu irakurritakoa?”.
- ❖ “Konta iezaiaz duzu apur bat; zertaz dihardu ipuintxoak...”.
- ❖ “Zuk noren antza duzu gehiago? Marizortzirena ala Zortzikorena?” (Bietako inoren antza ez duela badio, zein izatea gustatuko litzaiokeen galdetu. Arrazoitu dezala bere erantzuna).

13. Dozenan 13

Zer deritzozue asteko egun bat irakurketa tartetxo berezi moduan hartzea? Bertan, goxotasuna, lasaitasuna, gertutasuna, maitasuna eta abar izango dira elementu. Anima zaitezte proposamena martxan jartzen:

- ❖ Hautatu partaide guztien artean eguna.
- ❖ Egun horretan gauzatu nahi diren ekintzak planifikatu.
- ❖ Eta EKIN!!!

Aste honetan, adibidez, DOZENAN 13 atala erabil dezakezue, eta partekatu momentu goxo bat.



22. zEnbakia
diRua moRRoi ona
baina Nagusi tXaRRa!

14. Lagun

Lagun txakurraren komikia irakurtzeko, zera egin dezakezu:

- ❖ Bunbuiloak estali, eta haurrari esan, imajinazioa erabiliz eta komikiko irudietan oinarrituz, ipuintxo bat asma dezala!
- ❖ Amaitutakoan kendu gainetik orriak, eta ea zerekin topo egiten duzuen!

Seguru zure haurrak bertan ageri den ipuina baino gauza interesgarri eta politagoak idazten dituela!

Aldiz, haurrak idazten ez badaki, bion artean egin, zuk idatziz eta hark ipuina asmatzen lagunduz!

15. Euskararen etxea eta lagun berria.

Partekatu irakurketa zure aurrean duzunarekin, eta animatu lagun berria zein ote den asmatzera. Lagundu Interneteko webguneetan lagun ezkutuaren bideoak aurkitzen.

Kontuan izan haurra irakurketara animatzeko gure inplikazioak eta jarriko diogun interesak guztiz eragingo dutela.

16. Munduak guztiontzat beharko luke.

Komiki honetan, Ume Alaia eta Patakon eta haren lagun berrien eskutik familia mota ezberdin eta aniztunen inguruko ideia erakusten zaigu. Irakur iezaiozu misterio tonuaz ipuintxoa haurrari, eta honako galdera hauek egin ondoren:

- ❖ “Zergatik harritu da Patakon?”.
- ❖ “Anikaren ama al da trenean umearekin doan andrea?” (Ea zer erantzuten duen haurrak, eta, erantzun horren arabera, azaldu iezaiozu haurrari irakurri duzun gai honen inguruan zure usteak, zure ideiak... partekatu dena zure haurrarekin!).

17. Elkar ilustrazio eta ipuin lehiaketa

Konta iezaiozu haurrari zer dioen lehiaketaren inguruan, eta animatu parte hartzera!